



Baliabide fisikoak

Funtzionamendurako ezinbestekoak diren aktibo materialak. Peluka-enpresa baterako, honako hauek hartu behar dira kontuan. Gure kasuan horrela izango litzateke:

Makineria eta tresnak: Pelukak egiteko ekipamenduak behar ditugu (josteko makinak, praktikarako manikiak, ilea ehuntzeko tresnak).

Lehengaiak: Ilea (naturala), sareak, zinta itsasgarriak eta bestelako materialak.

Espazio fisikoa: Tailerra edo lantegia ekoizpenerako. Biltegia, materialak eta amaitutako produktuak gordetzeko. Denda fisikoa edo eskaerak bidaltzeko instalazioak salmenta online kasuan. Ekipamendu teknologikoak: Ordenagailuak, diseinu-softwareak, produktuak argazkitan hartzeko kamerak eta webgunea edo sare sozialak kudeatzeko tresnak.

Baliabide intelektualak

Abantaila lehiakorra ematen duten ezagutza, patente edo markei egiten die erreferentzia. Gure kasuan:

Erregistratutako marka: Enpresaren nortasuna babesteko izena, logotipoa eta egile-eskubideak. Gure izena Ametsin da eta logoa emakume bat da. Honek egiten gaitu ezberdin.

Diseinu eksklusiboak: Peluken eredu bereziak, merkatuan gure produktua bereizteko.

Ezagutza teknikoa: Pelukak egiteko teknikak menderatu behar ditugu (eskuz joste, lace front, etab.).

Marketin-estrategiak: Bezeroak erakartzeko planak sare sozialen, influencer-en edo lineako salmenta-plataformen bidez.

Datu-baseak: Hornitzaile fidagarrien, bezero potentzialen eta merkataritza-bazkideen zerrenda.

Giza baliabideak

Parte hartzen duten pertsonen talentua eta trebetasunak ezinbestekoak dira. Funtsezko profil batzuk:

Peluken diseinatzaileak: Bezeroen beharrei erantzuten dieten ereduak sortzeko adituak.



Materialetan adituak: Ilean kalitatea (naturala edo sintetikoa) eta haren zaintzak ezagutzen dituzten pertsonak.

Marketin- eta salmenta-taldea: Produktuak sustatzeko eta saltzeko.

Administrazio-langileak: Eskaerak, finantzak eta hornitzaileekin harremanak kudeatzeko.

Bezeroarentzako arreta: Salmenta osteko laguntza, kontsulta pertsonalizatuak edo arazoak konpontzea

Baliabide ekonomikoak

Funtzionamendua finantzatzeko eta proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko:

Hasierako kapitala: Materialak, makinak eta funtzionamendu-gastuak estaltzeko beharrezkoa den dirua.

Kreditu-lerroak edo maileguak: Inbertsio garrantzitsuetarako kanpoko laguntza behar baduzu.

Etekin errepikariak: Salmenta zuzenek edo bezeroekin (adibidez, antzerki edo zinemako enprekin) kontratuek sortutako diru-fluxuak.

Marketinerako aurrekontua: Publizitate eta marka sustapenerako funtsak.

Baliabide ukigarriak eta ukiezinak identifikatzea:

<u>Ukigarriak</u>	Lehengaiak (ilea, osagarriak)	Azpiegitura fisikoa (tailerra, denda)	Ekipamendu teknologikoak eta egiteko tresnak.	
<u>Ukiezinak</u>	Taldearen ezagutza teknikoa eta sormena.	Hornitzaile fidagarrien eta ile-apaintzaileen kontaktu-sarea.	Marketin- eta sare sozialen kudeaketa-trebet asunak.	Moda, estetika edo ile apainketako aurreko esperientzia.